



Ikaskuntza kooperatiboa eta egoera motor kooperatiboak Heziketa Fisikoan



Egoera motor kooperatiboek eta ikaskuntza kooperatiboak ikasleen jokabide motorrean, giza harreman positiboetan eta inklusioan duten ekarpenaren garrantzia azpimarratuko da.

Uzt. 10 - Uzt. 11 2025

Kod. H13-25

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2025

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 10 - Uzt. 11 2025

Kokalekua

1. EGUNA: Miramar Jauregian 2. EGUNA: Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultatea HEFA II

Hizkuntzak

Euskara Gaztelera

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea

Azalpena

Uda Ikastaro honek Heziketa Fisikoan ikaskuntza kooperatiboak eta egoera motor kooperatiboek eskaintzen dituzten heziketa aukerak eta aplikazio praktikoa aztertuko ditu. Parte-hartzaileek lankidetzan oinarritutako metodologia eraginkorrak ezagutuko dituzte, eta, bereziki, egoera motor kooperatiboek eta ikaskuntza kooperatiboak ikasleen jokabide motorrean, giza harreman positiboetan eta inklusioan duten ekarpenaren garrantzia azpimarratuko da.

Saio teoriko eta praktikoen bidez, irakasleek eta hezitzaileek baliabide eta estrategiak eskuratuko dituzte, beren eguneroko jardunean txertatzeko. Horrez gain, parte-hartzaileek metodologia horiek praktikan jartzeko aukera izango dute, lankidetzan giroan esperimendatuz eta Heziketa Fisikoaren bidez, ikaskuntza esanguratsua sustatuz.

Jardunaldi hau, bereziki, Heziketa Fisikoko irakasleentzat, kirol begiraleentzat eta hezitzaileentzat dago zuzenduta, baina kooperazioan interesa duten beste hezkuntza arloetako profesionalek ere parte hartu dezakete.

Helburuak

Ikaskuntza kooperatiboaren printzipioak ulertzea eta oinarritzko egiturak ezagutzea.

Egoera motor kooperatiboak diseinatzeko eta aplikatzeko gaitasuna garatzea.

Egoera motor kooperatiboaren ekintza printzipioak eta jokabide motorrean duten eragina ezagutzea.

Ikasleekin lankidetzan sustatzeko estrategiak praktikan jartzea.

Lankidetzan



Programa

2025-07-10

09:00 - 09:10	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Lander Asla Iglesias Sohat - Zuzendaria
09:10 - 10:30	“Bases del aprendizaje cooperativo. “ Jesus Vicente Ruiz Omeñaca Universidad de La Rioja - Irakaslea
10:30 - 11:00	Atsedena
10:45 - 12:00	“Ikaskuntza Kooperatiboa Heziketa Fisikoan inplementatzeko ereduak” Jon ortuondo bárcena Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskola - Irakaslea
12:00 - 13:15	“La cooperación en la educación Física: entre la sociodidáctica y la semiotricidad. “ Raul Martínez de Santos Gorostiaga UPV/EHU - Irakaslea
13:15 - 13:50	Mahai ingurua: “Mahai-ingurua eta galdera-erantzunak.” Jesus Vicente Ruiz Omeñaca Universidad de La Rioja - Irakaslea Jon ortuondo bárcena Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskola - Irakaslea Raul Martínez de Santos Gorostiaga UPV/EHU - Irakaslea
13:50 - 14:00	Sintesia

2025-07-11

	PRAKTIKA SAIOAK
09:00 - 09:15	Eguneko helburuen azalpena.
09:15 - 10:30	“Ikaskuntza kooperatiboaren zikloa — 1.go fasea: Talde kohesioa lantzen” Jon ortuondo bárcena Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskola - Irakaslea
10:30 - 10:45	Atsedena
10:45 - 13:15	“Ikaskuntza kooperatiboaren zikloa : 2.garren fasea: Teknika sinpleak. 3.garren fasea: Teknika konplexuak.” Jon ortuondo bárcena Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskola - Irakaslea
13:15 - 14:30	Itxiera Ondorioak eta itxiera. Ikastaroaren laburpena, ekarpenak eta etorkizuneko gomendioak. Parte-hartzaileen jasotako iritziak Lander Asla Iglesias Sohat - Zuzendaria

Zuzendaritza



Lander Asla Iglesias

IES Balmaseda BHIko zuzendaria eta Heziketa Fisikoko irakaslea, esperientzia zabala duena kudeaketa pedagogikoan, irakasleen prestakuntzan eta hezkuntza-berrikuntzan. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan Lizentziatua eta Heziketa Fisikoko Maisu Espezialista da. Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan irakasle gisa aritu da, metodologia aktiboak eta ikaskuntza kooperatiboa sustatuz. Euskadiko Heziketa Fisikoko curriculumaren LOMLOE egokitzapenean parte hartu du, irakasleei zuzendutako gida metodologikoak eta irizpide pedagogiko eguneratuak garatuz. 2018-2024 artean, Deustuko Unibertsitateko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntzako Masterrean Heziketa Fisikoko irakasle eta espezialitateko koordinatzailea izan da, praktikak eta TFM-ak tutorizatuz. Irakasleen prestakuntzan eta Heziketa Fisikoan teknologia berrien erabileran formatzaile gisa aritu da, hezkuntza-praktika berritzaileak sustatzeko konpromiso irmoarekin.

Irakasleak




Lander Asla Iglesias

IES Balmaseda BHIko zuzendaria eta Heziketa Fisikoko irakaslea, esperientzia zabala duena kudeaketa pedagogikoan, irakasleen prestakuntzan eta hezkuntza-berrikuntzan. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan Lizentziatua eta Heziketa Fisikoko Maisu Espezialista da. Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan irakasle gisa aritu da, metodologia aktiboak eta ikaskuntza kooperatiboa sustatuz. Euskadiko Heziketa Fisikoko curriculumaren LOMLOE egokitzapenean parte hartu du, irakasleei zuzendutako gida metodologikoak eta irizpide pedagogiko eguneratuak garatuz. 2018-2024 artean, Deustuko Unibertsitateko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntzako Masterrean Heziketa Fisikoko irakasle eta espezialitateko koordinatzailea izan da, praktikak eta TFM-ak tutorizatuz. Irakasleen prestakuntzan eta Heziketa Fisikoan teknologia berrien erabileran formatzaile gisa aritu da, hezkuntza-praktika berritzaileak sustatzeko konpromiso irmoarekin.



Raul Martínez de Santos Gorostiaga

Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Doktorego Programaren zuzendaria da. Hezkuntza fisikoaren eta kirolaren inguruan hainbat kargu zuzendaritzan izan ditu, besteak beste, dekanoa eta idazkari akademikoa. Bere ibilbide akademikoan, kirolaren semiotikan, hezkuntza fisikoaren didaktikan eta kirol-jokoen logikan espezializatu da. Nazioarteko aldizkari zientifikoetan argitalpen ugari egin ditu, baita Europako proiektuetan parte hartu ere, kirola eta gizarte-aniztasuna uztartuz. Bere ikerketa-lanak jarduera fisikoaren bidezko hezkuntza inklusiboaren garapenean eta kirolaren bidezko gaitasun sozialak lantzean oinarritzen dira. Kirolaren eta hezkuntzaren arteko harremanak sakontzen ditu, mugimenduaren azterketa eta hezkuntza fisikoaren pedagogia uztartuz.



Jon ortuondo bárcena

BAM

Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) doktorea da, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan

Cum Laude aipamenarekin. Heziketa Fisikoaren irakaskuntzan eta ikaskuntza kooperatiboan aditua da. Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolan irakasle titularra da, non jokoia, motrizitate sortzailea eta gorputz-adierazpena bezalako gaiak lantzen dituen. Hezkuntza inklusiboan, ebaluazio formatiboan eta metodologia aktiboetan aditua da, eta hainbat kongresu eta argitalpen zientifikotan parte hartu du. Irakasleen prestakuntzan eta metodologia pedagogiko berrietan ekarpen garrantzitsuak egin ditu, irakaskuntza kooperatiboa eta parte-hartzailea sustatuz. Irakasleen garapen sozioemotionala eta inklusioa bultzatzen dituen hezkuntza ikuspegia lantzen du, irakasle eta ikertzaile gisa lan egiten duen esparru guztietan.



Jesus Vicente Ruiz Omeñaca

Errioxako Unibertsitateko doktorea da, Psikologia eta Heziketa Fisikoan espezializatua. Heziketa Fisikoaren eta Kirolaren Oinarri Psikologikoen Ikerketako Masterra eta Psikologian Lizentziatua izateaz gain, Heziketa Fisikoko maisu espezialista da. 38 urteko esperientzia du Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan eta unibertsitatean irakasle gisa. Gaur egun, IES Escultor Daniel ikastetxean eta Errioxako Unibertsitatean Heziketa Fisikoa eta bere didaktika irakasten ditu. 150 kongresu eta prestakuntza-jardueratan baino gehiagotan parte hartu du ponentzia gisa, eta 124 argitalpen ditu, liburuak eta artikuluko zientifikoak barne. Ikaskuntza kooperatiboan, kirolaren bidezko balio-hezkuntzan, Heziketa Fisikoko Zerbitzu Ikaskuntzan, kultura arteko testuinguruetan jarduera fisikoan eta neurozientziaren ekarpenean sakondu du. Heziketa Fisikoaren metodologia berritzaileen erreferente garrantzitsua da.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2025-06-30 ARTE	2025-07-10 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	52,00 EUR
UIK euskaraz	-	74,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	63,00 EUR
Matrikula exentzioa	-	52,00 EUR
Irakasteko ikasten - Eusko Jaurlaritza	-	63,00 EUR
Irakasteko ikasten - Nafarroako Gobernua	-	63,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	63,00 EUR
Elkar	-	63,00 EUR

Kokalekua

1. EGUNA: Miramar Jauregian 2. EGUNA: Hezkuntza, Filosofía eta Antropologia fakultatea HEFA II

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia / Oñati plaza, 3 | 20018 Donostia / San Sebastián

Gipuzkoa